

## BARNEKO KONTRATAZIO-JARRAIBIDEAK

EAJ-PNVk, Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatutako alderdi politikoa den aldetik, nortasun juridiko propioa du, eta baita berezkoak dituen eta bere Estatutuen jasotzen diren helburuak betetzeari begira jarduteko ahalmena ere.

Alderdi politikoa elkarte-oinarria duen erakunde pribatua izan arren (Alderdi Politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren Zioen Azalpena), eta bere kontratuek izaera pribatua izan arren, alderdi politikoen finantziazioari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege organikoaren Hamahirugarren Xedapen Gehigarriak, *“Alderdi politikoen kontratazio-araubideak”* deritzanak, hauxe ezartzen du: *Alderdi politikoen kontratazio-prozedurak honako printzipio hauetan oinarrituko dira: publizitatea, konkurrentzia, gardentasuna, konfidentziasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, guztia ere borondatearen autonomiarekiko errespetuari eta, hala dagokionean, konfidentziasunari kalterik egin gabe.* Horrekin batera, ezartzen da *alderdi politikoek* barneko hainbat jarraibide onartu beharko dituztela kontratazioaren arloan; horiek aurreko zenbakian aurreikusitakora egokituko dira eta, onartu aurretik, aholkularitza juridikoaz arduratzen den organoak horiei buruzko txostena egin beharko du. *Jarraibide horiek alderdi politikoaren webgunean argitaratu beharko dira.*

Horrekin batera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3.4. artikulua ezartzen du alderdiek *kontratazioari buruzko Barne-jarraibideak onartu beharko dituztela, aurreko paragrafoan ezarritakoari eta EBko araudiari egokituak, eta dagokien aholkularitza juridikoak horiei buruzko txostena egin behako duela arauak onartu aurretik. Jarraibide horiek alderdiaren webgunean argitaratu beharko dira.*

Hori horrela, adierazitako lege-arauak betetzeko xedez, Barneko Kontratazio-jarraibide hauen helburua da obra, zerbitzu eta horniduren kontratazioaren prozedura orokorrak arautzea, ondoren aipatzen diren inspirazio-printzipioak integratuz.

### Lehenengoa.- KONTRATAZIOA INSPIRATZEN DUTEN PRINTZPIOAK

#### **A. PUBLIZITATEA**

Kontsideratuko da publizitate-printzipioa bete egin dela kontratazio-prozesuaren hasiera webgunean argitaratzen denean, Kontratazioaren barne-jarraibideen arabera.

#### **B. GARDENTASUNA**

Kontsideratuko da gardentasuna bete egin dela honako hau jakinarazten bada kontratuen esleipena egin aurretik:

- Esleitu beharreko kontratuari aplikatzen zaizkion arauak.

- Lizitaziorako nahikoak diren epeak.
- Kontratua esleitzeko eskumena duen organoa, aurretik eta modu garbian zehaztua.
- Kontratua eskaintzarik onenari esleitzeko asmoa.

### **C. KONKURRENTZIA ASKEA**

Printzipio hau aplikatzearen helburua da eskaintza bat baino gehiago eskuratzea, eskaintza horiek alderatu eta baloratu ahal izateko deialdian ezartzen diren irizpideen arabera.

### **D. KONFIDENTZIALTASUNA**

EAJ-PNV konprometitzen da enpresariak konfidentzial gisa sailkatu duten informazioa ez hedatzeko.

Kontratazio-prozedurak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera tratatuko dira.

Gisa berean, kontratistak errespetatu beharko du prozesuan parte hartzeagatik edo kontratua gauzatzegatik eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna.

### **E. BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIORIK EZA**

EAJ-PNVk diskriminaziorik egin gabe deskribatuko du kontratuaren xedea, eta parte hartzeko berdintasuna errespetatuko du.

### **Bigarrena.- ARAUBIDE JURIDIKOA**

Jarraibide hauen xede diren kontratuak **kontratu pribatutzat** hartzen dira.

### **Hirugarrena.- KONTRATAZIO ESPEDIENTEA**

Barneko Kontratazio-jarraibide hauekin bat etorritik, lizitazioa egin aurretik kontratazioari dagokion espedienteak prestatuko dira.

Espedienteak hasiko dira gastua edo inbertsioa eskatzen duten sailtako arduradunen proposamenez, betetzekoak diren beharren izaera eta neurria justifikatu ondoren.

Kontratazio-espedienteak honako dokumentazio hau hartuko du barne:

1.- Justifikazio-txostena.

2—100.000 €-tik gorako kontratuarentzat, obren kasuan, eta 40.000 €-tik gorakoarentzat, zerbitzu eta horniduren kasuan (Salbuespen Eremuko arauetan adierazitakoak izan ezik –Barneko Kontratazio-jarraibide hauetako hamargarren araua-

), kontratua gidatzen duten Agiri eta Baldintza Teknikoak prestatu eta onartu beharko dira eta kontratuan txertatu.

3.- Espedientea onartzeko erabakia eta esleipen-prozesuaren hasiera. Erabaki horrek gastuaren onarpena ere ekarriko du berekin.

### Laugarrena.- KONTRATAZIO ORGANOA

40.000 €-tiko gorako kontratuak, obren kasuan, eta 15.000 €-tiko gorakoak, zerbitzu eta horniduren kasuan, kasu bakoitzean espresuki eratuko den Kontratazio Mahai batek esleituko ditu. Beraren partaideak honako hauek izango dira:

- Esleipena bideratzen duen lurralde-eremuko arduradun ekonomikoa.
- Kontratazioak ukitzen duen sailaren arduraduna.
- Ogasun Siletik kasu bakoitzerako izendatzen den pertsona.

Mahaiak txosten teknikoak eskatu ahal izango dizkie hirugarrenei, hori beharrezkotzat jotzen duenean.

### Bosgarrena.- KONTRATUEN SAILKAPENA

Euren zenbatekoaren arabera, arau hauen mende dauden kontratuak honela sailkatzen dira:

#### A. 15.000 €.-tik beherako balioa duten obra, zerbitzu edo horniduren kontratuak.

Muga horren barnean dauden kontratuak zuzenean esleitu ahal izango dira. Kontratazio-organoak enpresa bakar bati eskatu ahal izango dio eskaintza eta kontratua berari zuzenean esleitu.

Kontratazioa egingo da enpresak eskainitako aurrekontua onartzearen bidez; horretarako, fax edo email bat bidaliko da, edo dagokion kontratua sinatuko da, beharrezkotzat jotzen denean. Ogasun Siletik horretarako izendatzen den pertsona arduratuko da tramitazioa kudeatzeaz, eta baita eskatutako materiala edo zerbitzua jasotzeaz eta gainbegiratzeaz ere.

Espediente erraztuak osagai hauek izango ditu, gutxienez: gastuaren onarpena eta gastu horri dagokion faktura.

Aurrekoa gorabehera, zerbitzu eta hornidura arrunt eta errepikarien gastu korrante edo ohikoen kasuan, eta gastuaren zenbatekoa 3.000 €-tik beherakoa bada, aski izango da gastua egiten duen lurralde-eremuko administrazio-arduradunak fakturari buruzko

oniritzia ematea, betiere urterako onartutako aurrekontuak kontsignazio nahikoa badu gastua ordaintzeko.

**B. 15.000 eta 40.000 euro bitarteko balio estimatua duten kontratuak, zerbitzu eta horniduren kasuan, eta 15.000 eta 100.000 euro bitartekoa dutenak, obren kontratuen kasuan.**

Iragarkia kontratatzailearen profileen argitaratuko da, eta eskaintzak aurkezteko epea neurritzotzat jotzen dena izango da, eta inoiz ere ez da izango 10 egunetik beherakoa, iragarkia argitaratzen denetik kontatuta.

Prozesu horretan ez bada eskaintza nahikorik jasotzen, muga honen barnean dauden kontratuak eskaintzak zuzenean eskatzearen bidez esleitu ahal izango dira. Kasu horretan, EAJ-PNVk kontratua gauzatzeko ahalmena duten gutxienez hiru enpresari egingo die eskaria, gutun, posta elektronikoko edo faxaren bidez. Salbuespen gisa, eskaintza enpresa bakar bati eskatu ahal izango da, baldin eta, arrazoi teknikoengatik, kontratua enpresari jakin bati soilik esleitu badakioke.

Proposamena baloratzekoan, prezioa ez den beste irizpideren bat kontuan hartu behar denean, organo aginpidedunak beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu bere esleipen-proposamena egin baino lehen.

Ekonomia sailak eskaintzak alderatzeko taula bat prestatuko du, eta kontratua eskaintzarik onenari esleitzea proposatuko du. Kontratua Ogasun Siletik formalizatuko da, dagokion lurralde-mailako arduradunaren bidez.

Kontratatzailearen aukeraketa kontratatzailearen profileen argitaratuko da.

**C.- 40.000 €-tik gorako balio estimatua duten kontratuak, zerbitzu eta horniduren kasuan, eta 100.000 €-etik gorakoa dutenak, obren kasuan.**

Kontratu hauek prestatzeko, Agiri bat eta haren Baldintza Teknikoak prestatu behar dira, jarraibide hauen arabera kasu bakoitzean beharrezkoa den informazioarekin; halaber, kontratuarentzako ezarritako esleipen-prozedura ere ezarri beharko da nahitaez.

Agiriak baldintza hauek adieraziko ditu, gutxienez:

- Kontratuaren xedea eta oinarritzko ezaugarriak.
- Esleipen-prozedura eta balorazio- zein ponderazio-irizpideak
- Oinarritzko aurrekontua.

- Lizitatzailen eta esleipendunaren betekizun espezifikoak eta -hala badagokio-bermeak.
- Eskaintzak aurkezteko epea eta lekua.
- Eskaintzak irekitzeko eta esleipena argitaratzeko data.

Jarraitu beharreko prozeduran, honako arau hauek aplikatuko dira:

Iragarkia kontratatzailearen profilenamean argitaratuko da, eta eskaintzak aurkezteko epea neurritzotzat jotzen dena izango da, eta inoiz ere ez da izango 10 egunetik beherakoa, iragarkia argitaratzen denetik kontatuta.

Eskaintza nahikorik jasotzen ez bada, kontratua gauzatzeko ahalmena duten gutxienez hiru enpresari eskatuko zaie eskaintza. Nolanahi ere, eta salbuespen gisa, eskaintza enpresa bakar bati eskatu ahal izango da, baldin eta, arrazoi teknikoengatik edo konfidentzialtasunagatik, kontratua enpresari jakin bati soilik esleitu badakioke.

Kontratazio-organoak egokitzat jotzen badu, kaudimen-irizpide objektiboak ezarri ahal izango ditu proposamenak aurkeztera gonbidatutako hautagaiak aukeratzeko, interesa adierazi dutenen artean; halaber, gehieneko hautagai kopuru bat ezarri ahal izango da, proposamenak egitera gonbidatzeko. Kopuru hori ezin izan daiteke hirutik beherakoa. Irizpide objektibo horiek kontratuari dagokion Baldintza-agirian sartu beharko dira, gutxienez.

EAJ-PNVk kontratuaren edozein alderdi negoziatu ahal izango du lizitatzailerekin, Baldintza-agirietako negoziatuetatik kanpo uzten diren alderdiak izan ezik; horri lotuta, negoziatioak dirauen bitartean bermatuko du lizitatzaille guztiek tratu berdina jasotzen dutela.

Proposamenak baloratzerakoan, prezioa ez den beste irizpideren bat kontuan hartu behar denean, organo aginpidedunak beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu bere esleipen-proposamena egin baino lehen.

Ekonomia sailak eskaintzak alderatzeko taula bat prestatuko du, eta kontratua eskaintzarik onenari esleitzea proposatuko du. Kontratua Ogasun Saitetik formalizatuko da, dagokion lurralde-mailako arduradunaren bidez.

Kontratatzailearen aukeraketa kontratatzailearen profilenamean argitaratuko da.

### **Seigarrena.- KONTRATUEN ZENBATEKOA**

Jarraibide hauetan ezarritako mugak eta prozedurak aplikatzeari begira, zenbateko guztiak BEZik gabe kontsideratzen dira.

Esleipenaren zenbatekoa ezarzteari begira, obren kasuan haien osoko kostua kontsideratuko da; urtebetetik gorako iraupena duten zerbitzu eta horniduren kasuan, berriz, zerbitzuaren urteko kostua kontsideratuko da.

### Zazpigarrena.- KONTRATUEN IRAUPENA

Kontratuen iraupena ezartzeko, kontuan hartu beharko dira prestazioen izaera, haien finantziazioaren ezaugarriak eta beraren gauzapena aldizka konkurrentziara ateratzeko beharra.

Kontratuak luzapen bat edo batzuk aurreikusi ahal izango ditu, baldin eta ezaugarriak aldatu gabe mantentzen badira beraren iraupen-aldian.

Hori guztia Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 29. artikularekin bat etorritik.

### Zortzigarrena.- ENPRESARIAREN AHALMENA ETA KUDIMENA

Kontratatzeko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta ahalmen tekniko edo profesionala egiaztatuko dira kontratazio-organoak kasu bakoitzean ezartzen duenaren arabera.

Kaudimenaren gutxienerako betekizunak kontratuaren Baldintza-agirian zehaztuko dira.

### Bederatzigarrena.- KONTRATUEN FORMALIZAZIOA

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da. Kontratuaren gauzapena ezin izango da hasi haren formalizazioa egin aurretik, ohiz kanpoko kasuetan izan ezik.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 35. artikularen arabera, kontratuak formalizatzeko dokumentuetan puntu hauek aipatu beharko dira:

- Alderdien identifikazioa.
- Sinatzaileek kontratua sinatzeko ahalmena dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Kontratuaren xede eta motaren definizioa.
- Prezio zehatza edo prezioa zehazteko modua.
- Kontratuaren iraupena.
- Prestazioak jasotzeko, entregatzeko edo onartzeko baldintzak.
- Ordainketaren baldintzak.
- Bermeak eta penalizazioak, hala badagokio.
- Kontratua deuseztatzera eraman dezaketen arrazoiak.

### Hamargarrena.- SALBUESPEN EREMUA

Jarraibide hauek ez dira aplikatuko:

- EAJ-PNVko pertsonalaren kontratazioan.

- Kontratazio-organoak konfidentzialtzat jotzen dituen kontratuetan.
- Segurtasun-kontuekin zerikusia duten kontratuetan.
- Kanpaina politikoekin zerikusia duten zerbitzuen kontratazioetan.
- Urgentziaz egin beharreko kontratazioetan.